

## ARTEAREN OINARRIAK

Artearen oinarriak irakasgaiaren bidez, ikasleek hainbat arte-diziplinatako obrak aztertuko dituzte hainbat modutan eta hainbat teknikarekin. Halaber, obra horiek kronologikoki kokatu eta identifikatuko dituzte, eta azterketa hori sorkuntza artistikoaren ideiarekin lotuko dute. Diziplina horrek ikasleen baliabide propioak aberastuko ditu, eta kultura-ezagutza irekia eta askotarikoa zabalduko du. Gainera, hori guztia eskuratzeak ikasleengan ondare kultural eta artistikoarekiko kontzientzia sentikorra sortzea ahalbidetuko du. Bereziki aipatu beharra dago arte tradizionalaren historian ezkutatu egin diren eta ikasleek ezagutu eta defendatu ahal izango dituzten obren eta artisten aurkikuntza eta ezagutaraztea.

Irteera-profileko funtsezko konpetentzien garapenak ikaskuntza holistikoa eta konpetentziala bultzatzen du, eta komunikazio-gaitasuna, ikerketa zientifikoko tresnen erabilera (baliabide analogiko eta digitalekin) eta ezagutza eraikitze konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoaren garapena sustatzen ditu. Azkenik, aztertutako obren dimentsio sozial, historiko, zibiko eta moralaren inguruko gertakari eta arauak eta herritartasunerako konpetentziari lotutako jakintzak aztertzen dira irakasgai honetan. Ekintzailtza-kompetentziari lotuta, ikasleek eskuratze horiek praktikan jarri ahal izango dituzte, irakasgaiaren berezko proiektuetan edo irakasgaiarekin zerikusirik ez dutenetan, eta etorkizuneko goi-mailako prestakuntzei aurre egiteko edo arteari lotutako proiektu profesionaletan parte hartzeko prestatuko dira.

Hainbat artista eta obraren ezagutza eta analisia (haien ingurumen-inpaktua kontuan hartuta) eta ondare kultural eta artistikoaren kontserbazioa egungo munduko erronkekin eta garapen iraunkortasunerako helburuekin konprometituta daude.

Kompetentzia espezifikoak elkarri lotuta eta pixkanaka eskuratuko dira, konplexutasun-mailaren arabera. Zortzi gaitasun espezifiko ezarri dira, honako hauek oinarri hartuta: artearen ikuskeran izan diren aldaketak ulertzea, artearen funtzioei buruzko gogoeta egitea, erabilitako hizkuntzak ezagutzea, hainbat baliabiderek eta hainbat euskarritan egindako obrak ikertzea, ezagutza zientifikoak integratzea, eta sentimendu, emozio eta ideien adierazpena hautematea. Eta, hori guztia, ikasketa proiektu indibidualak edo kolektiboak iraunkortasun-testuinguru batean sortzeko aukerarekin integratzeko baliabide gisa, kolaborazio-lana eta inklusioa baloratuz.

Artearen Oinarriak irakasgaiko oinarrizko jakintzen multzoak honako hauek dira:

A. "Arte" kontzeptua: jatorria: multzo honetan, arteari buruz dauden teoriak aztertzen dira, eta teoria horiek arteak historian izan dituen askotariko kontzeptuekin eta funtzioekin lotzen dira.

B. Klasikoa denaren proiektzioa: multzo honetan, ikasleek arte klasikoaren eta haren berpizte eta eragin ugarien gakorik esanguratsuenak aztertzen dituzte.

C. Argia eta espiritualtasuna artean: argi/espiritualtasun binomioaren bidez, intereseko hainbat alderdi lantzen dira jarduera artistikoen eta askotariko mugimenduen berezitasunak ezagutzeko.

D. Artea eta irudikapena: multzo honetan, irudikapenari lotutako alderdiak aztertzen dira,

eta birsortze eta interpretazio bisualerako dauden modu aberatsak eta askotarikoak alderatzen dira.

E. Artea adierazpide gisa: multzo honetan, adierazpide artistikoaren aldagai mugagabeetako batzuk zehaztu eta korronte estetikorik esanguratsuenak aztertu eta alderatzen dira.

F. Natura, gizartea eta komunikazioa artean: multzo honetan, artearen alderdi ekologiko eta iraunkortasuna, artearen alderdi soziala eta funtzionaltasuna, eta artearen eta komunikabideen arteko eraginak eta interferentziak lantzen dira.

G. Metodologiak eta estrategiak: multzo honek artea ikasteko eta aztertzeko dauden metodologiak (hainbat ikuspegitik abiatuta), talde-lanari lotutako jakintzak eta proiektu artistikoen faseak biltzen ditu, eta garatu beharreko jarrerazko alderdi batzuk ere txertatu dira.

Ikasleek eskuratze horiek guztiak praktikan jarri ahal izango dituzte, irakasgaiaren berezko proiektuetan edo irakasgaiarekin zerikusirik ez dutenetan, eta etorkizuneko goimailako prestakuntzei aurre egiteko edo arteari lotutako proiektu profesionaletan parte hartzeko prestatuko dira.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Artearen ikuskeran izan diren aldaketak ulertzea, aldi historiko edo kultura-testuinguru desberdinen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuz, aniztasunak dakarren aberastasuna azaltzeko.

“Arte” kontzeptuaren definizioak eztabaidak sortzen jarraitzen du gaur egun. Artearen esanahia elementu bizia eta aldakorra da, eta etengabe aldatu da gizateriaren historia osoan. Aldaketa horiek, gertaeren kronologiari ez ezik, artea egiten duten kulturen aniztasunari ere lotuta daude. Arte informala agerpenak, gauzak zalantzan jartzeko jarrera dadaistak edo argazkien agerpenak, adibidez, gogor astindu zuten kontzeptu horretan. Beraz, mugarriak dira, eta ikasleek ohitu egin beharko dute horietara.

Aldaketa horiek hautemateak eta ezagutzeak ikasleek hainbat estilo eta garaitako arte-adierazpenen analisia egiteko baliabideak aberastea dakar. Era horretan, ikasleek irizpide osatuagoa izango dute, hainbat obra alderatuko dituzte, haien arteko konexioak ezarriko dituzte eta argudioekin azalduko dituzte. Horri guztiari esker, ikasleek aniztasun artistikoak dakarren aberastasuna azaldu ahal izango dute ahozko ekoizpenen, idatzizkoen edo multimodalen bidez, aurreiritzirik gabe hurbildu ahal izango dira aniztasun horretara, eta beren kultura-errepertorioa zabalduko dute.

Konpetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KPSII4, HK1, KKAK1, KKAK2.

2. Arteak historia osoan izan dituen funtzioei buruzko gogoeta egitea, aldi bakoitzean bete duen zereginaren bilakaera aztertuz, haren berezitasunak hautemateko eta edozein garaitako ondare kultural eta artistikoaren balioa azpimarratzeko.

Artearen esanahian sakontzean, haren baliagarritasunari buruz galdetu beharra dago ezinbestean. Kontzeptua aldatu den bezala, artearen funtzioa ere aldatu egin da historian. Gizateriaren sorreratik ekoizpen artistikoek bete dituzten zeregin ugarien artean, funtzio magikoa, erlijiosoa, pedagogikoa, oroitzapenezkoa eta estetikoa daude. Aldi berean, gizarte eta kultura desberdinek erabilera desberdinak eman dizkiete aurrez zeuden produktu artistikoei (zenbaitetan, sortu ziren unean izan zituztenen oso desberdinak). Ikasleek jarduera artistikoaren funtzionaltasunen bilakaera dinamiko hori ezagutu eta estimatu behar dute, garai orotako ondare kultural eta artistikoari duen garrantzia eman diezaioten. Gainera, ikasleek ekoizpen artistiko orok dituen eta ekoizpen horien funtzioa baldintzatzen duten giro- eta testuinguru-baldintzatzaileez jabetu behar dute, obrak errespetuz, sakonean eta irizpide egokiarekin aztertzeko, eta ondorioak ekoizpenen berezitasunen balioa azpimarratuko duten eta aurreiritziz betetako ikuspegiak baztertuko dituzten ahozko ekoizpenen, idatzizkoen edo multimodalen bidez partekatzeko.

Konpetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KPSII4, HK1, HK3, KKAK1, KKAK2.

3. Hainbat aldi eta estilotako ekoizpen artistikoak formalki, funtzionalki eta semantikoki aztertzea, haien osagaiak eta haien hizkuntzen gakoak ezagutzuz eta hiztegi espezifikoa erabiliz, irizpide estetikoa garatzeko eta arteaz gozatzeko aukerak zabaltzeko.

Estilo, joera edo mugimendu artistiko bakoitzak hizkuntza propio bati lotutako gako komun batzuk ditu, eta gako horiek obrak ulertzen eta identifikatzen laguntzen dute obrak hartzeko unean. Hurbilketa-metodo horrek artelanak sailkatzea du helburu, eta ekoizpen artistikoaren konplexutasun zirkunstantzialari eta substantzialari ekiteko lehen modua da. Artearen estilo, mugimendu edo joeren azterketara hurbiltzeko, beharrezkoa da askotariko ekoizpen artistikoak ikertzea, iturri analogiko eta digitaletan lortutako informazioa aztertzea eta berezitasunak eta puntu komunak zein desberdintasunak azaltzea. Ikasleek terminologia espezifikoa zabala ezagutu behar dute artelan baten analisiak onartzen dituen askotariko ñabardurak, aldagaiak eta sotiltasunak hizkuntza zehatz, egoki eta koherente batekin deskribatzen jakiteko.

Gainera, mugimendu eta estilo artistikoei lotutako formak, funtzioak eta esanahiak aztertzeko dauden metodologiak ulertu eta irizpide egokiarekin aplikatu behar dituzte. Izan ere, metodologia horiek obretarako hurbilketaren oinarria dira, eta artean erabilitako hizkuntzak ezagutzeko aukera ematen dute. Horren helburua da ikasleek edozein adierazpen artistikoren aurrean irizpide estetiko informatu bat garatzea. Irizpide horrek estiloaren eta testuinguruaren identifikazioa eta artearen adierazpen-aberastasunaren balorazioa uztartuko ditu, era horretan obrak gozatzeko aukera handiagoa izateko.

Konpetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, DK1, KPSII1.2, KPSII4, HK1, KKAK1, KKAK2.

4. Hainbat baliabiderek eta hainbat euskarritan egindako artelanak azaltzea, sortu ziren testuinguru sozial, geografiko eta historikoa eta haien eraginak eta proiektioak identifikatuz, garai eta kultura baten testigantza gisa eta ondarearen elementu gisa baloratzeke.

Ondare artistikoa behar bezala estimatzeko, beharrezkoa da, ondare hori osatzen duten obrak sakonki ezagutzeaz gain, obra horiek sortu ziren testuingurua ulertzea. Ildo horretan, obra jakin baten estilora eta obra kokatuta dagoen mugimendura zorrotz hurbiltzeko, obraren inguruko alderdi historikoak, geografikoak eta sozialak hartu behar dira kontuan. Horrek, analisi teknikoarekin eta prozedurazkoarekin batera, arte-adierazpenak interpretatzeko beharrezkoak diren gakoak emango ditu, eta obrak era kontzientean eta errespetuz baloratzea ahalbidetuko die ikasleei. Obrak sortu ziren testuinguru historiko, sozial eta geografikoaren azterketa egitean genero-ikuspegia txertatzea lagungarria izango da, gainera, ikasleek historia osoan emakumeek artean zer zeregin bete duten eta garaia araberak emakumeak nola hartu diren kontuan ulertzeko. Ildo horretan, emakumeen irudikapenak ez ezik, sortzaile gisa egin dituzten ekarpenak ere ikasi beharko dira.

Bestalde, ondare kultural eta artistikoaren aniztasunaren barruan, hainbat erlazio mota agertzen dira: aldi bereko edo desberdineko estiloen arteko eraginak, elementu jakin batzuen iraupena ondorengo aldietan, estilo edo korrante jakin batek sortzen dituen erreakzioak, arbuioak edo subertsioak eta abar. Obren edo estiloen arteko erlazioak baldintzatzen dituzten fenomenoak hainbat iturri analogiko eta digital erabiliz aztertzeak, ezagutzeak eta identifikatzeak edozein ekoizpen artistiko irizpide eta sakontasun handiagoarekin aztertzea ahalbidetzen die ikasleei. Era horretan, bere testuinguruan kokatutako obraren ikuspegi zorrotzagoa lortzeko aukera ematen duten konexioak sortzen dira.

Hainbat baliabiderek eta hainbat euskarritan egindako obraren analisiaren ondorioetan oinarrituta, ikasleek beren ikerketaren emaitzak partekatu ahal izateko ahozko ekoizpenak, idatzizkoak edo multimodalak egingo dituzte. Ondorio horiek, nolahi ere, adierazpen artistikoak beren garaiko kultura-testigantza gisa eta ondare osoaren parte gisa baloratzea ahalbidetuko dute.

Konpetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KD1, KPSII4, HK1, KKAK1, KKAK2.

5. Artearen komunikazio-ahalmena ulertzea, hainbat ekoizpenetan bizi-esperientzien isla identifikatuz eta ezagutuz, adierazpide artistikoa sormena, irudimena, autoestimua eta hazkunde pertsonala sustatzeko tresna gisa baloratzeke.

Sorkuntza artistikoaren hizkuntza bereizgarri guztiak tresna garrantzitsuak dira ideiak eta kontzeptuak zein sentimenduak eta emozioak transmititzeko. Nolanahi ere, artearen

esanahia, komunikazio-ekintza orotan bezala, artistaren adierazpidearen eta obraren harreraren arteko konbinazioaren emaitza da. Hizkuntza artistikoen dimentsio bikoitz horren ezagutzak eta praktikak ekoizpen artistikoen analisietan sakontzeko eta obra mota orotan esperimentatutakoa adierazi eta partekatzeko aukera ematen diete ikasleei. Era berean, beren bizi-esperientziak produktu artistikoekin lotzean, ikasleek sormena, irudimena, autoestimua eta hazkunde pertsonala garatzeko baliabidetzat har dezakete adierazpide artistikoa.

Konpetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, HK1, KKAK2, KKAK3.1.

6. Askotariko sorkuntza artistikoak interpretatzea haien formaren, esanahiaren, sorkuntza-testuinguruaren eta harreraren azterketatik abiatuz, sentsibiltatea eta zentzu kritikoa garatzeko eta ekoizpen artistikoen inguruko pertzepzioen eta iritzien aniztasuna hautemateko.

Forma, esanahia eta testuingurua ekoizpen artistikoen analisisan nabarmentzen diren alderdiak dira, eta garrantzitsuak dira, halaber, ekoizpen horien harreraren analisisan. Haien identifikatzeak obrarako hurbilketa gogoko maila baterantz, hots, interpretazio irizpide egokiarekin aurrera egitea ahalbidetzen die ikasleei. Interpretazioak ekoizpen artistikoa ezagutzaren hainbat eremutan aurkitu daitezkeen elementuekin lotzea dakar. Interpretatu ahal izateko, beharrezkoa da ideia eta ezagutza propioak ez ezik sentimenduak eta emozioak ere kontuan hartzea. Era horretan, obra ikasleentzat gauza bizia izatea, ikasle bakoitzak bere egitea eta elkarrizketa eta iritzi-aniztasuna dinamizatzeko eta enpatia bultzatzeko objektu bihurtzea lor daiteke. Interpretazioak ikasleen sormena aberasten du. Ikuspuntu desberdinak baloratzean, ikasleek sentsibiltatea eta zentzu kritikoa garatzen eta ekoizpen artistikoen inguruko pertzepzioen eta iritzien aniztasuna hautematen ikasten dute. Hainbat artelanen interpretazio propioak ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalen bitartez komunikatu daitezke, eta dauden ikuspuntuaren inguruko eztabaidak eta bateratze-lanak egin daitezke.

Konpetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KPSII4, HK1, HK3, KKAK1, KKAK2.

7. Proiektu artistiko indibidualak edo kolektiboak sormenarekin lantzea, diziplinarteko estiloak, teknikak eta hizkuntzak ikertuz eta egokienak hautatuz eta aplikatuz, planteatutako ideiak eta helburuak gorpuzteko eta erronka artistiko berriei aurre egiten ikasteko.

Hainbat diziplinari lotutako proiektu artistiko berritzaileak eta sortzaileak, ingurune digitala espazialki kontuan hartuta, artea eta kultura bultzatzeko moduak dira, eta ideiak eta helburuak gorpuzten dituzte horrelako erronkak bultzatzen dituen kultura-aniztasuneko testuinguru baten barruan. Proiektu horietan parte hartzeak pertsonak eta baliabideak antolatzeke eta

hainbat fasetan planifikatzeko beharra dakar. Ikasleek proiektu indibidual eta kolektiboetan aktiboki parte hartzearen bidez, beren burua antolatzen, zereginak banatzen eta gainerakoek ekarpenak errespetuz eta enpatiaz baloratzen ikasi ahal izango dute. Zeregin horiek kolaborazio-metodologiaren erabilera bultzatuko duen inklusio-testuinguru batean egin behar dira.

Prozesu horretan, funtsezkoa da baliabideen eta bitartekoen integrazioa proiektuak garatu eta zabaltzeko. Horretarako, diziplina anitzeko hizkuntzen eta tekniken erabilerak zein haien konbinazio eta aplikazio sortzaileak etorkizuneko beste proiektu batzuk fidagarritasunez egiteko beharrezkoak diren trebetasunak eman behar dizkiete ikasleei.

Konpetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: KD3, KPSII3.1, KPSII3.2, HK3, EK2, EK3, KKAK4.1, KKAK4.2.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

<p><b>1. konpetentzia espezifikoa</b></p> <p>1.1 Artearen aniztasunak dakarren aberastasuna errespetuz azaltzea, garai eta kultura desberdinetako obrak aztertuz (testuinguruari lotuta) eta haiei lotuta dagoen “arte” kontzeptuaren analisia eginez.</p> <p>1.2 Arteak historian izan duen ikuskeraren bilakaera argudiatzea, aldi eta kultura desberdinetan izan dituen esanahiak ekimenez konparatuz eta haien antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuz.</p>
<p><b>2. konpetentzia espezifikoa</b></p> <p>2.1 Arteak historian izan dituen funtzioak bereiztea, hainbat estilo eta garaitako askotariko ekoizpen artistikoetan oinarrituta haien bilakaera aurreiritzirik gabe aztertuz.</p> <p>2.2 Hainbat adierazpen kultural eta artistikoren berezitasunak azaltzea, berezitasun horiek beren funtzioarekin era ireki eta kritikoa eta errespetuz lotuz.</p>
<p><b>3. konpetentzia espezifikoa</b></p> <p>3.1 Hainbat garai eta estilotako adierazpen artistikoen osagaiak identifikatzea, haien hizkuntzen gakoak ezagutuz eta dagokion garaiarekin, artistarekin edo mugimendurekin duten lotura justifikatuz.</p> <p>3.2 Hainbat adierazpen artistiko formalki, funtzionalki eta semantikoki, irizpide egokiarekin eta sentsibilitatearekin aztertzea, haien hizkuntzei lotutako terminologia espezifikoa erabiliz.</p>
<p><b>4. konpetentzia espezifikoa</b></p> <p>4.1 Hainbat estilo eta garaitan eta hainbat baliabide eta euskarriarekin egindako ekoizpen artistikoak aztertzea, sortu ziren testuinguru sozial, geografiko eta historikoarekin lotuz eta beste garai eta kulturatako obrekin izan ditzaketen loturak azalduz.</p> <p>4.2 Hainbat estilo eta garaitako ekoizpen artistikoei eta testuinguruarekin dituzten erlazioei buruzko ikerketen ondorioak partekatzea, baliabide analogiko eta digitalik egokienak erabiliz.</p>

### **5. kompetentzia espezifikoa**

5.1 Hainbat garai eta estilotako artisten obretan oinarrituta artearen adierazpen-aukerak eta arteak ideiak, kontzeptuak, sentimenduak eta emozioak transmititzeko duen ahalmena azaltzea, obra horien inguruan egin diren interpretazioak aztertuz.

5.2 Hainbat aldi eta estilotako ekoizpen artistikoak aztertzea, norberaren eta besteen bizi-esperientziekin sormenez lotuz eta sormena, irudimena, autoestimua eta hazkunde pertsonala sustatzeko tresna gisa baloratuz.

### **6. kompetentzia espezifikoa**

6.1 Hainbat aldi eta estilotako sorkuntza artistikoak interpretatzea, haien forma, esanahia eta sortu ziren testuingurua aztertuz eta norberaren ideiak, ezagutzak, emozioak eta sentimenduak kontuan hartuz.

6.2 Hainbat adierazpen artistikoren inguruan egin diren interpretazioak alderatzea, ikuspuntu desberdinak aztertuz eta balorazio pertsonal bat proposatuz.

### **7. kompetentzia espezifikoa**

7.1 Proiektu artistiko indibidualak edo kolektiboak planteatzea, hainbat diziplinatako estilo, teknika eta hizkuntzarik egokienak hautatuz eta zereginak era arrazoituan antolatuz eta banatuz.

7.2 Proiektu artistiko indibidualak edo kolektiboak sormenarekin egitea, planteatutako ideiak eta helburuak gauzatzuz eta eskuratutako ikaskuntzak aplikatuz.

## **Oinarrizko jakintzak**

### **A. "Arte" kontzeptua: jatorria.**

Artearen teoriak. Historian izan dituen definizioak. (Genero-ikuspegitik).

### **B. Klasikoa denaren proiektzioa.**

Greziako arkitekturaren eta eskulturaren hastapenak. Ordenak. Obrarik eta aldirik garrantzitsuenak.

Eraikuntza antzinako Erroman. Erretratu eskultorikoa antzinako Erroman.

### **C. Argia eta espiritualtasuna artean.**

Adierazpide plastiko eta bisualerako baliabideek Erdi Arotik Barrokora izan zuten bilakaera. Arte modernoa.

### **D. Artea eta irudikapena. Arte garaikidea.**

Artearen aldaketa Klasikorako itzuleratik tradizioarekiko hausturara bitarte. (XIX. mendera arte).

### **E. Artea adierazpide gisa. Abangoardiak.**

XX. mendea. Lehen abangoardiak.

Artea 1945etik aurrera. Bigarren abangoardiak.

Azken joerak. Abangoardien krisia.

### **F. Natura, gizartea eta komunikazioa artean.**

Artea eta ekologia. Land Art eta Povera izenekoetatik gaur egun arte.

### **G. Metodologiak eta estrategiak.**

Mugimendu eta estilo artistikoei lotutako formak, funtzioak eta esanahiak aztertze eta artelanaren azterketa teknikoak eta prozedurazkoak egiteko metodologiak. Ezagutzan garapen-motor gisa konfiantza izatea.

Zereginen banaketa proiektu artistiko kolektiboetan: hautaketa-irizpideak, eskatutako trebetasunetan oinarrituta.

Proiektu-metodologia. Proiektu artistikoen faseak. Parte-hartze aktiboa berdintasunean, ikuspegi inklusiboa, ez-sexista eta diskriminatzen duten estereotipoak gainditzekoa hartuz.

Estiloak, teknikak eta hizkuntzak hautatzeko estrategiak.

Jarrera etikoa jabetza intelektualaren aurrean, erabilera arduratsuak.

Artearen esparruari lotutako hizkuntza eta hiztegi espezifikoak. Ezagutza eta erabilera.